

**PRACTICUM IIrako PROGRAMA
PEDAGOGIAKO GRADUA
2017-2018 IKASTURTEA**

HEFA - UPV/EHU



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

2017/2018 IKASTURTEA

Pedagogiako Practicum IIko tutoreak:

Jon Altuna, Juana Mari Maganto, Nerea Portu eta Esther Cruz

PRACTICUM Ilrako PROGRAMA
PEDAGOGIAKO GRADUA
2017-2018 IKASTURTEA
F.H.F.A. – UPV/EHU

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA**
- 2.- PROFIL PROFESIONALA, EGINKIZUNAK ETA JARDUERA ESPARRUAK**
- 3.- PRACTICUM Ilan GARATU BEHARREKO GAITASUNAK**
- 4.- IKASKUNTZA-EMAITZAK**
- 5.-. PRAKTIKETAKO ZENTROKO TUTORETZA (ikus gida orokorra web orrian)**
- 6.- FAKULTATEKO TUTORETZA (ikus gida orokorra web orrian)**
- 7.- IKASLEAK (ikus gida orokorra web orrian)**
- 8.- METODOLOGIA**
 - 8.1. I. FASEA**
 - 8.2. II. FASEA**
 - 8.3. TXOSTENA**
- 9.- EBALUAZIOA**
 - 9.1. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA**
 - 9.2. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA**
- 10. KONTAKTU INTERESGARRIAK**
- 11. ERANSKINAK**

1.- SARRERA

Practicuma funtsezko elementu bat da Pedagogiako Graduko ikasketa-planaren barruan. Izan ere, Practicumak aukera ematen du Unibertsitateko ikasketak lanbide-jardunera hurbiltzeko, testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoa eskuratzeko, hezkuntza- edo gizarte-errealitatera gerturatzeko eta errealitate horrekin integratzeko eta gerora ikaslearen lanbidea izango denari behatu, hasiera eman eta egiaztatzeko.

Practicum II 4. mailako lehenengo lauhilekoan egiten da, irailaren 14tik abenduaren 23ra; guztira 24 ECTS kreditu (600 ordu) dira, eta titulazioaren VII. moduluan sartzen da. Practicumak bi fase ditu.

I. FASEA: 2 kreditu balio ditu (34 ordu, aurrez aurrekoak, eta 16 ordu, bestelakoak) eta fakultatean egingo da oso-osorik, 2017eko irailaren 14tik 22era bitartean.

II. FASEA: 24 kreditu balio ditu (370 ordu, aurrez aurrekoak, eta 180 ordu, bestelakoak), eta praktiketako zentroan egingo da, batik bat. Zentroan egingo den praktika-lana osatzeko, segimendu-prozesu bat eta analisi-lan bat egingo dira Fakultatean, 2017eko irailaren 25tik abenduaren 22ra bitarteko praktiketako denboraldi osoan zehar.

2.- PROFIL PROFESIONALA, EGINKIZUNAK ETA JARDUERA ESPARRUAK.

Pedagogiako garduduna esku-hartze pedagogikoa, prestakuntza, ebaluazioa eta proiektuen eta baliabideen kudeaketa gauzatzeko prestatuta dagoen profesionala da, eta aditua, hezkuntza gaitan. Hauxe izango da gradudunaren jardueraren xedea: Giza Eskubideen errespetuan oinarritutako hezkuntza inklusiboa, eleanitza, komunitarioa eta pertsonen bizitza osoan zeharreko gizarte-ongizateari begirakoa gauzatzea, erakundeen, gizartearen, kulturaren eta lanaren arloetan.

Horretarako, hezkuntzaren arloko arazoak konpontzeko gizarte-trebetasunak garatu beharko ditu, gizarte-ingurunea errespetatu beharko du, pertsonen arteko harremanen arloan aditua izan beharko du, erabakiak hartzeko gaitasuna eta jarrera arduratsua izan beharko ditu, eta gizarte-zientzien eta giza zientzien arloek berezko dituzten gaitasunak beharko ditu.

Bere eginkizunen artean, hauek nabarmentzen ditugu:

- Hezkuntzaren alorreko diagnostikoa egitea eta esku hartzea, askotariko testuinguru sozial eta kulturaletan.
- Antzemandako premiei erantzuteko jarduera pedagogikoak antolatzea.
- Hezkuntzako zerbitzuei, proiektuei eta erakundeei buruz aholkatzea.
- Hezkuntza programak diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea.
- Hezkuntza eta/edo lanbide orientazioa prestakuntza- eta kultura-baliabideetatik eta/edo baliabide profesionaletatik abiatuta.

- Prestakuntza- eta hezkuntza-egoerei erantzuteko eta segimendua egiteko jakintza- alor askotako taldeetan parte-hartzea.
- Zentro eta entitate publiko eta/edo pribatuak antolatzea eta kudeatzea.
- Prestakuntzarako material sormenezkoa ekoiztea euskarri desberdinetan.
- Prestakuntza prozesuak/programak diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea.
- Prestatzaileei eta beste agente hezitzaile batzuei prestakuntza ematea.

Esku-hartze pedagogikoaren xede izan daitezkeen testuinguru guztiak dira pedagogoaren jarduera-esparru profesionalak; esate baterako, hezkuntza arautua, hezkuntza-administrazioa, teknologia berrietako hezkuntza, enplegua eta gizarte-gaiak, hezkuntza berrikuntzako prozesuak eta kalitatearen kudeaketa, antolakuntza eta enpresa, eta minusbaliotasunen, kulturaren, hizkuntzaren... alorreko esku-hartze zerbitzuak.

3.- PRACTICUM Ilan GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

1. Praktiketako testuinguru zehatzean murgiltzea, eta erreferentziazko profil profesionalaren gaitasunak barneratzea jarrera kritiko eta hausnartzaile batetik.
2. Praktika profesionalean erabiltzeko estrategia eta prozedura desberdinak (teknikak, protokoloak, dinamikak, lan-prozesuak) eskuratzea diziplina arteko ikuspegi batetik.
3. Ekintza praktikoaren azterketatik abiatuta jakintza garatzea, eta jakintza hori tituluko moduletan eskuratutako ezagupenekin lotzea.
4. Hezkuntza sustapenarekiko jarrera baikorra izatea hezkuntzako esku-hartzea eta garapen profesionala hobetzen laguntzeko.
5. Praktiketako ibilbidea zehaztasun zientifikoarekin prestatzea eta azaltzea dagozkion dokumentuen eta txostenen bidez (egunkaria, memoria, mintegietako aurkezpenak).
6. Hezkuntza-planak eta proiektuak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea pedagogiako profesionalen esku-hartze esparru desberdinetan, eta, horretarako, behar diren tresnak, dinamikak eta bitartekoak erabiltzea.
7. Talde profesionaletan sartzeko, talde-lana egiteko gai izatea, eta antolaketarako, kudeaketarako eta dinamizaziorako gaitasunak erakustea.

4.- IKASKUNTZA-EMAITZAK

- Dokumentuak eta txostenak zehaztasun zientifiko handiz egitea, eta ikaskuntzako ibilbidea ongi egituratuta azaltzea, barneratutako ezagupenei zein garatutako prozedurei eta jarrerari dagokienez.
- Memoria Practicum prozesuaren emaitza gisa egitea.
- Kanpoko praktiken garapen prozesua modu sistematikoan azaltzea mintegietan.
- Practicumeko segimenduko tutoretza-multzoaren esparruan elkarlanean parte hartzea.
- Gogoeta kritikoa egitea hezkuntza-teoria eta -jardunbidea abiapuntu hartuta.
- Pedagogiako profesionalen jardun-esparruetako batekin lotutako hezkuntza-proiektu berritzaile bat diseinatzea.

5.- PRAKTIKETAKO ZENTROKO TUTORETZA ([web orrian](#))

6.- FAKULTATEKO TUTORETZA ([web orrian](#))

7.- IKASLEAK ([web orrian](#))

8.- METODOLOGIA

Practicumak bi FASE ditu. Lehenengoa, fakultatean egingo da, nagusiki, eta, bigarrena, praktiketako zentroan, gehienbat. Bi fase horiek osatzeko, segimendu- eta azterketa-prozesu bat gauzatu da Fakultateko mintegietan.

Bi faseetako aurrez aurreko jarduera guztietara joan beharra dago, nahitaez.

8.1. I FASEA: Prestakuntza edukiei eta eduki horiek jardun profesionalarekin duten loturari buruzko gogoeta.

Fase honek 2 ECTS kreditu ditu, 50 lan-ordu, guztira; horietatik, 34 ordu aurrez aurrekoak dira, eta 16 ordu, bestelakoak.

Helburua da ikaslea laugarren mailako Practicumean kokatzea, prestakuntza-aldi horretako prestakuntza-jardueretan eta -zereginetan izan dezakeen teilakapena bideratzea, eta praktiketako prozesua kokatzeko eta aztertzeko ikaskuntza-tresna egokiak zehazten laguntzea.

Titulazioko laugarren mailako Practicum prozesuak oinarri izan behar dituen alderdi teorikoak, testuinguruarenak, instrumentalak eta bizipenak zehaztea du xede. Metodologia aktiboen bidez ekingo zaie aurretiko esperientzia berrikusteari, praktikak egingo diren erakundearen esparruetan aldeztu aurretik kokatzeari, eta horretarako behar diren funtsezko alderdi teoriko-praktikoei.

Prozesu metodologikoa bost gune hauen inguruan egituratuta dago:

1.- Practicum II aurkeztea eta kokatzea

Practicumaren ildo nagusiak aurkeztea eta argitzea, egitura, egin beharreko jarduerak, ikasleek hartu beharreko konpromisoak eta izan beharreko jarrera azpimarratuta.

Practicumaren inguruan indarrean dagoen araudia eta ikasleek bete beharreko araudi horren eranskinak aurkeztea.

2.- Igurikimenak aztertzea eta doitzea

Ikasleek aldez aurretik formulatu dituzten igurikimenen aurkezpena eta azterketa egitea, taldean, eta, laugarren mailako Practicumetik espero dutena eta espero dezaketena berrikustea eta hausnartzea, banaka.

3.- Gogoeta partekatua egitea garatutako gaitasun akademikoen gainean

Ikasleek berriro ekitea aldez aurreko eduki teoriko-praktikoen gainean egindako lanari, irakurketa lasaia egiteko distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan bereganatutako ikaskuntzetatik abiatuta.

4.- Praktiketako zentrorako gaitasun eta trebetasun profesionalak

Ikasleek parte hartzea hezkuntzako esku-hartze eta rol profesionalaren garapena bultzatzera bideratutako gaitasun profesionaleri buruzko lan-prozesu batean.

5.- Practicum Ilra egokitutako metodologia-tresnak berreraikitzea

Ikasleek zenbait tailerretan parte hartzea, eta, tailer horietan, aribidean dauden programak aztertzeke eta/edo ebaluatzeke teknikak eta diseinu-proposamenen plangintza lantzea, besteak beste.

8.2. II. FASEA: Zentro, zerbitzu eta erakundeetako egonaldia

Fase honek 24 ECTS kreditu ditu, 550 lan-ordu, guztira; horietatik, 370 ordu aurrez aurrekoak dira, eta 180 ordu, bestelakoak.

FASE honetan egin beharreko lanaren helburua da, batetik, ikasleak bere rol profesionala eraikitzea behaketaren, gogoetaren eta praktikaren bidez beste profesional batzuekin elkarlanean, eta, bestetik, profesional bezala trebatzea zuzeneko esku-hartzearen bidez.

Aurrez aurrekoak ez diren orduak jarduera hauek egiteko erabiliko dira:

- Dokumentuak berrikusteko.

- Prozesuan zehar zehaztuko den bibliografia irakurtzeko.
- Segimendu-mintegietatik sortutako lanak egiteko.
- Landa-egunkaria idazteko.
- Praktiketako zentroko joan-etorrietarako.
- Azken memoria prestatzeko eta egiteko.

Fase honetan, bi prozesu jarriko dira martxan aldi berean:

1.- Praktikak zentroetan, zerbitzuetan eta erakundeetan

Practicum IIren zati hau hasierako harreman eta behaketa fasea gainditu ondoren ikasleak esku-hartze profesionalean integratzeko moduan antolatuta dago, tituluko profilak berezkoak dituen gaitasunak gara ditzaten.

Prestakuntza proiektua

Lehenengo asteetan, ikasleak, instruktorearekin eta tutorearekin batera, bere prestakuntza proiektua prestatuko du (ikus kronograma eta I. eranskina).

2.- Segimendu-mintegiak eta lanketa teoriko-praktikoa Fakultatean.

Mintegiak Practicumean parte hartzen duten ikasle guztien antolakuntza- eta ikaskuntza-esparruak dira, eta, esparru horren baitan, ikasle bakoitzaren prestakuntza proiektuaren jarraipenari ekingo zaio. Mintegietan ikaskuntza sortzen eta sozializatzen da, eta ezaguerak eskualdatzen dira, ikasleen gogoetaren eta aurkezpenen bidez, ikasle bakoitzak egindako lanetik abiatuta; beraz, laguntza-, ekoizpen- eta komunikazio-guneak dira. Horrez gain, informazio-iturri garrantzitsuak dira, Pedagogiako lanari buruzko erreferentziak ematen dituztelako.

Metodologia aktiboak erabiltzen dira, parte-hartzea eta praktikek lanbidearen zentzu deontologikoan duten esanahiarekiko konpromiso profesionala eta soziala sustatuko dituzten ikaskuntzak bultzatzearen.

Intereseko gaietako batzuk dira, jardun profesionalaren egitura instituzionala eta araudi-egitura, harrera eta haren zentzua hezkuntza-harremanaren ezarpenari begira, ekintza profesionalean barneratuta dauden jarrerazko eta bizipenezko prozesuak, esku-hartzearen zentzua eta esanahia, esku hartzeko prozesuen eraikuntza eta abiaraztea, ekintza praktikoaren azterketa, harreman profesionalak eta lan koordinatua hezkuntzan, gizarte- eta lan-esparruko baldintzak eta prestakuntza-beharren proiektzioa.

KRONOGRAMA				
FASEA	EGUNA	JARDUERA	ORDUA	TOKIA
1. FASEA Prestakuntzaren edukiak	Irailak 14	Practicum II aurkeztea eta kokatzea	9:00-10:50	GRADU ARETOA
	Irailak 14	Igurikimenak aztertzea eta doitzea, eta gogoeta partekatua egitea garatutako gaitasun akademikoen gainean.	11:10-13:15	ZEHAZTEKE
	Irailak 15	Praktiketako zentrorako gaitasun eta trebetasun profesionalak.	9:00-13:00	ZEHAZTEKE
	Irailak 18	Praktiketako zentrorako gaitasun eta trebetasun profesionalak.	9:00-13:00	ZEHAZTEKE
	Irailak 19	Practicum IIra egokitutako metodologia-tresnak berreraikitzea.	9:00-13:00	ZEHAZTEKE
	Irailak 20	Lehenengo fasearen sintesia egin eta ebaluatzea. Bigarren fasea planifikatzea.	9:00-13:00	ZEHAZTEKE
	Irailak 21- 22	Tutorearekin bilera	Tutorea-rekin adostu	ZEHAZTEKE
2. FASEA Praktikak <i>Prestakuntza proiektua:</i>	Irailaren 25tik 29ra arteko astea	Tutorearen eta instruktorearen artean prestakuntza proiektua egiaztatzen dute lehenengoz	Zentroa	
	Urriaren 9tik 13ra arteko astea	Ikasleak instruktorearekin adostutako prestakuntza proiektuaren lehenengo zirriborroa prestatzen du, eta tutoreari aurkezten dio	Zentroa	
	Urriaren 23tik 27ra arteko astea	Ikaslearen, instruktorearen eta tutorearen artean prestakuntza proiektua onartzen eta ixten dute	Zentroa	
	Urriaren 31rako	Prestakuntza proiektua sinatuta eta zigilatuta parte guztietatik	Zentroa	
2. FASEA Segimendu-mintegiak	Urriak 02ko astan	Segimendu-mintegiak	Tutorea 13:00-15:00	
	Urriak 23ko astean	Segimendu-mintegiak	Tutorea 13:00-15:00	
	Azaroak 20ko astean	Segimendu-mintegiak	Tutorea 13:00-15:00	
	Abenduak 18ko astean	Segimendu-mintegiak	Tutorea 13:00-15:00	
	2014urtarrila zehazteke	Segimendu-mintegiak	--	

8.3. AZKEN MEMORIA

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko azken memoria egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan aritu diren deskribatuko eta aztertuko dute. Bakarkako lan bat da, jatorrizkoa, zeinetan, prestatzeko erabili diren dokumentuak eta garrantzitsutzat jotzen direnak eranskin gisa sartuko baitira, eta ez, inolaz ere, memoriaren testuaren barruan.

Practicumeko prozesuan zehar gogoeta bultzatzeko eta azken txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak bere esperientziari buruzko oharra idatziko ditu egunkari batean.

Txosten horretan zenbait alderdi zehaztuko dira. Beste batzuen artean, hauek:

- A. Datu pertsonalak.
- B. Aurkibidea eta Sarrera.

LEHENENGO ATALA: Hezkuntza Zentroan buruturiko Practicumaren memoria.

1. Praktiketako zentroaren identifikazioa eta bere testuinguruaren analisia: (3-5 or.)

- Identifikazio datuak eta esparru soziokulturala: izen ofiziala, kokapen geografikoa eta gizarte- eta kultur- testuinguruaren ezaugarriak hezkuntza zentroarentzat esanguratsuak direnak, erakunde mota, harremanetarako moduak (telefonoa, emaila, faxa web orria, etab.).
- Zentroak burutzen dituen jarduerak eta funtzioak: zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen dituen zerbitzuak, proiektuak, programak.
- Antolakuntza testuinguruak:
 - Barne antolakuntza: kudeaketa eta zuzendaritza organoak. Lantaldea(k): profesionalak, eginkizunak, lan metodologia, etab.
 - Kanpo antolakuntza: zein erakunderen menpe dagoen, zein saretan hartzen duen parte, erregimen ekonomikoa, haren jarduera erregulatzen duen araudia.

2. Praktika prozesua: (10-12 or.)

- a- Hasierako Prestakuntza Proiektua: Proiektua osatzeko eraman den prozeduraren azalpen laburra, aipatuko direlarik helburuak, eginkizun motak, dedikazioa eta hitzartutako kronograma.
- b- Zentroan burututako lana: sistematikoki azaldu behar dira landu diren esparruak, jardura programak eta egin diren lanak, erabili diren metodologiak eta bitartekoak.
- c- Hobekuntza edo garapen proposamena, ikasleak zentroari egiten diona.
 - Zentroak dituen, eta pedagogikoki tratatuak izan daitezkeen, beharren identifikazioa.
 - Esku-hartze proiektuaren proposamena, hatzeman den (diren) premia bati (batzuei) erantzun diona (diena). Ondorengo faseak hartuko dira kontuan:

- Proiektua kokatzea: ze premiei erantzuten dien.
- Hartzaila izango den populazioa.
- Bitartekoen aurreikuspena eta programazioa.
- Ezarpen-prozeduraren proposamena.
- Ebaluazio-prozeduraren proposamena.
- Halaber, proposatu den proiektua ezartzeko aukera izan den kasuetan ondorengo puntuak txertatuko dira:
 - Aurrera eraman den ezarpen-prozedura.
 - Egin den ebaluazioaren emaitzak.
 - Ondorioak.

BIGARREN ATALA: Practicum II-an egin den lanaren inguruko analisisia eta hausnarketa pertsonala.

3. Lehenengo fasean egindako lanen sintesia eta eskuratutako ikaskuntzen inguruko hausnarketa. (3-4 or.)
4. Fakultateko mintegietan egindako lanari buruzko azterketa eta hausnarketa pertsonala. Mintegietan egin diren ikaskuntza mailako ekarpenak eta garatu diren gaitasunak. (3-4 or.)
5. Praktiketako zentroan egindako lanari buruzko azterketa eta hausnarketa pertsonala. (3-4 or.)
 - Prestakuntza Proiektuaren balorazioa, betetze mailaren inguruko hausnarketa eginez, haren garapena ahalbidetu/zaildu duten arazoietan sakonduta.
 - Lantaldea Practicumeko prozesuan, praktiketako zentroan.
 - Pedagogoaren perfil profesionala: rol profesionala, rol profesionalari ematen zaizkion funtzioak, lanbide barruko eta lanbide arteko harremanen esparrua, lanbideko gizarte- eta lan-baldintzak, auto pertzeptzio profesionala (prestakuntza akademiko-zientifikoa, trebetasun eta jarrera pertsonalak).
6. Practicumaren baliospen orokorra norberaren bizipenetan oinarrituta. (1 or.)

ERANSKINAK ETA BIBLIOGRAFIA

Memoria DIN A4 tamainako orrietan idatzi behar da, Times Roman letra-motan, 12 tamainan eta lerroarte bakuna utzita.

9. EBALUAZIOA

Practicumaren ebaluazioa egitean bi balorazio hauek hartuko dira kontuan: Batetik, fakultatean egindako lanarena, eta, bestetik praktiketako zentroan egindakoarena. Azken nota bi balorazioen batuketaren emaitza izango da, bakoitzari notaren % 50 esleituko zaio (5 puntu bitarte, memoriari, eta 5 puntu bitarte, instruktorearen txostenari). Nahitaezkoa izango da biak gainditzea Practicuma gainditzeko.

FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

Fakultateko tutoreak elementu hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzeko edo baloratzeko garaian:

Fakultatean antolatutako jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joatea eta bertan parte hartzea derrigorrezkoa da (eskatuko den gutxieneko nahitaezko bertaratzea % 80 da, bai I. faserako, bai II. faserako). Ez bada betetzen asistentzia eta parte-hartzea bai lehenengo fasean bai bigarren faseko jarraipen mintegiei dagokienetan Practicumari dagokion **kalifikazioan islatuko da, araso honengatik ez gainditzera iritsi daitekelarik..** Zentzu honetan, ezinbestekoa izango da tutorearen oniritzia jasotzea, honek ikaslearen lanaren balorazio positiboa baieztatuko duen heinean. Balorazio horretan kontuan hartuko dira: kideekin erlazionatzeko eta adierazteko gaitasun sozialak, eta praktika profesionalerako beharrezkoak diren estrategien eta prozeduren erabilera.

Practicumeko Azken Memoria. Ebaluazio-irizpideak:

- Memoria egiteko irizpideei eta egiturari jarraitzea: Datuak argitasunez eta koherentziaz aurkeztea. Dokumentua unibertsitateari dagokion mailan idatzia egotea.
- Zehaztasuna, zorroztasuna eta argitasuna dokumentazioa azaltzean eta argudiatzean. Lanbideari dagokion hiztegia zuzen erabiltzea.
- Sakontasuna praktikei buruzko analisia eta gogoeta egitean.
- Pedagogiako profesionalaren rolaerakiko egokitasuna eta konpromisoa garatutako lan eremuan. Profil profesionalaren inguruko analisia eta gogoeta karreran zeharreko prestakuntza akademikoaren eta zientifikoaren esparruan.
- Memoria gainditzeko, 10 puntutik hiru lortu beharko dira, gutxienez ere, ataletako bakoitzean.
- Memoriaren ataletako bakoitzaren balio haztatua hau izango da:
 - 1-2 atalak: % 60 (3 puntu).
 - 3. atala: % 10 (0,5 puntu).
 - 4. atala: % 20 (1 puntu).
 - 5-6 atalak: % 10 (0,5 puntu).

PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA (ikus IV. eranskina)

Practicuma amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori aldeztatik jasoko du, eta, bete ondoren, Fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

Praktiketako zentroko instruktoreak elementu hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian:

- Praktiketako ordu guztiak egin izana aldeztatik erabakitako egutegiaren eta ordutegiaren arabera.
- Jardueren betetze maila, ardura, adierazitako gaitasuna, jakin-mina eta jarrera arduratsua eta gogoetatsua izatea.
- Elkarlanean aritzea profesional taldeen esparruan; inizatiba izatea.
- Ebaluazio-orria betetzea.

AZKEN BALORAZIOAK

Behin praktikaldia amaitu ondoren, ikasleak bere praktikaldiaren ebaluazioa egingo du (ikus V. eranskina). Halaber, ikasleak egindako balorazioa eta zentroko instruktoreak egindakoa ikusi ondoren, tutoreak azken balorazioa eta ziurtagiria izenpetuko du (ikus VI. eranskina).

10.- KONTAKTU INTERESGARRIAK

Practicumeko dekanordea:

Elisabet Arrieta elisabet.arrieta@ehu.es 943 015496

Ikastegiko teknikaria:

Lidia Pretel practicum.fice@ehu.es 943 015562

11. ERANSKINAK.

I. ERANSKINA

PEDAGOGIAKO GRADUA (PRACTICUM II)

PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

2016/2017 IKASTURTE AKADEMIKOA

Ikaslearen izen-abizenak:

Jn./and.

(Fakultateko tutorearen izen-abizenak)

Tutore gisa

Jn./and.

Instruktorearen izen-abizenak:

NAN:

Tel:

e-maila:

.....ren (erakunde laguntzailea) ordezkari gisa

Honako hau da UPV/EHUren eta Erakunde horren arteko Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenean jasotako informazioa:

1. UPV/EHUK eskainitako irakaskuntzak: Pedagogiako Gradua
2. Prestakuntza-jarduerak egiteko lekua: Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
3. Erakundeko instruktorea:
4. Ikasketa-tutorea:
5. Praktiken Programaren Arduraduna (PPA): Elisabet Arrieta
6. Hezkuntza-helburuak:

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO OINARRIZKO GAITASUNAK:

1. Hezkuntzako pertsonak, taldeak, testuinguruak eta erakundeak aztertzea eta horien diagnostikoa egitea, hainbat jarduera-arlo profesionaletan esku-hartze pedagogikoa finkatzeko eta garatzeko.
2. Garapen profesionalerako prestakuntza-proposamenak planifikatzea eta antolatzea, berrikuntza-planen eta programen garapenaren arabera premiei erantzuteko.
3. Hezkuntzako prozesuak eta programak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea testuinguru eta talde anitzetan, gizarteratzea, kalitatea eta berdintasuna oinarri hartuta.
4. Hezkuntzako baliabideak eta erakundeak antolatzea eta kudeatzea, horiek optimizatzeko asmoz. Gainera, pertsonen eta kolektiboen hezkuntza-garapena eta gizarte-garapena sustatzeko materialak sortzea, hainbat euskarritan.

5. Hezkuntza-arloko gaien buruzko ezagutza kritikoa eskuratzea, interpretatzea, ikertzea eta eraikitzea, gai zientifiko, politiko, sozial eta etikoen buruzko gogoetetan eta erabakietan iritzia eta orientazioa emateko, Giza Eskubideen ikuspegitik.
6. Pertsonen artean harreman eta komunikazio horizontal eta enpatikoa sustatzeko baldintzak sortzea, testuinguru eleanizetan eta kultura aniztutan gizarteratzea sustatzeko (entzutea, negoziazioa, adostasuna eta desadostasuna, etika...).
7. Publiko espezializatuentzat eta ez-espezializatuentzat irizpide zientifiko eta sistematikoen arabera proposamenak lantzea eta argudiatzea, idatziz nahiz ahoz, erabakiak hartzeko prozesuak errazteko.
8. Ikaskuntza-trebetasunak, trebetasun pertsonalak, gizarte-trebetasunak eta lanbide-trebetasunak garatzea, pedagogoa hainbat lanbide-arlotan txertatzeko, baita autoenpleguan ere.

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN GENERIKOAK:

- 1.- Esparru ezberdinetako praktika profesionalak ezagutu; hezkuntza proiektuak, esku-hartze planak eta zein nolako saretan garatzen diren ikusi.
- 2.- Ikaskuntza gaitasunak garatu, praktiketako testuinguru ezberdinetan murgiltzeko asmoz.
- 3.- Estrategia eta esku-hartze estrategia espezifikoak identifikatu.
- 4.- Argudioetan oinarritutako erabakiak hartu, esku-hartze esparruetan sortzen diren egoera espezifikoekin konponketak bermatzeko.
- 5.- Kultur eta hizkuntz gizarte testuinguru aniztutan, pertsona eta taldeekin egiten diren hezkuntza esku-hartzeak aztertu eta planifikatu.

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

- 1.- Praktiketako testuinguruetan murgildu jarrera kritiko eta hausnartzaile batetik, erreferentziazko profil profesionalaren gaitasunak barneratuz.
- 2.- Praktika profesionalean erabiltzeko (teknikak, protokoloak, dinamikak, lan ibilbideak) estrategia eta prozedura ezberdinak kontutan izan, diziplina arteko begirada batetik abiatuta.
- 3.- Ezagupena garatu, ekintza praktikoen azterketatik abiatuz eta titulazioetako moduloetan landutako ezagupenekin lotura eginez.
- 4.- Hezkuntzaren esku-hartzea eta garapen profesionala hobetzeko Hezkuntza sustapenarekiko jarrera baikorra izan.
- 5.- Praktiketan egindako ibilbideak zehaztasun zientifikoarekin prestatu eta azaldu, dokumentazio eta txostenak sortuz (Egumerokoa, Txostenak, Mintegietako aurkezpenak)
- 6.- Hezkuntza proiektuak eta planak diseinatu, indarrean jarri eta ebaluatu Pedagogiako profesionalen esku-hartze esparru ezberdinetan. Horretarako tresna ezberdinak, lan dinamikak eta behar diren baliabideak erabiliko dira.
- 7.- Talde profesionaletan murgildu eta taldeko lana egiteko gai izan, antolaketarako, kudeaketarako eta dinamizaziorako gaitasunak erakutsiz.

7. Garatu beharreko jarduerak edo zereginak:

Garatu beharreko jarduera edo zereginen azalpena
1-
2-
(...)

8. Praktiken Programaren iraupena:

2016/09/26tik 2016/12/16ra

9. Praktikaren ordutegia:

Goizez eta/edo Arratsaldez

10. Ordu kopuru osoa: 370 ordu

11. Hala badagokio, finantzaketa-modua:

- a. Ikasleentzako Laguntza Poltsa, Erakundeak ordaindu beharrekoa: _____€
- b. Ordaintzeko modua: Erakundeak zuzenean ordainduko die ikasleei ezarritako kopurua, egoki iruditzen zaion moduan.

12. Ikasleen zerrenda (*ikasle bat baino gehiago direnean; kasu horretan, horietako bakoitzaren tutorea eta instruktorea adierazi beharko dira*):

Ikasleak (NAN, abizenak eta izena)	Ikasketa-tutorea	Instruktorea

Aldeek bi ale izenpetzen dituzte, _____(a)n, 2016eko _____ren _____(e)(a)n

UPV/EHUren IZENEAN
IZENEAN

ERAKUNDEAREN

(Sinadura eta zigilua)

IV. ERANSKINA

INSTRUKTOREAREN AMAIERAKO TXOSTENA

I. DATU OROKORRAK

Praktikaren izena	
Instruktoarearen izen-deiturak	
Erakunde laguntzailea	
Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua	
Tutorearen izen-deiturak	

II. GARATUTAKO JARDUERAREN DESKRIAPENA

Jarduera egin den Erakundearen saila	
Praktika-aldiaren datak	
Ordu-kopurua	
Jardueraren deskribapen laburra	

III. GARATUTAKO JARDUERAK

Garatutako jardueren deskribapena
1.
2.
(...)

IV. INSTRUKTOREAREN BALORAZIOA

BALORATU BEHARREKO PARAMETROAK (1etik 5era bitarteko balorazioa, non 5 bikain den eta 1 eskas)	1	2	3	4	5
Gaitasun teknikoa					
Ikasteko gaitasuna					
Lanak administratzea					
Ahoz eta idatziz komunikatzeko trebetasuna. Ezintasun bategatik hitz egiteko zailtasunak dituzten ikasleen kasuan, trebetasun honetarako autonomia maila adierazi beharko da, baita baliabide tekniko eta/edo giza baliabideren bat behar duten ere.					
Erantzukizun-zentzua					
Egokitzeko erraztasuna					
Sormena eta ekimena					
Implikazio pertsonala					

Motibazioa					
Kritikak hartzeko modua					
Puntueltasuna					
Harremanak lan-ingurunearekin					
Taldean lan egiteko gaitasuna					
Egoki irizten diren beste alderdi batzuen aipamena					
PRAKTIKAREN BALORAZIO GLOBALA	1	2	3	4	5

(Data eta instruktorearen sinadura)

V. ERANSKINA

IKASLEAREN AMAIERAKO BALORAZIOA

I. DATU OROKORRAK

Praktikaren izena	
Erakunde laguntzailea	
Praktika egin den Erakundearen saila	
Praktiken Programaren Arduradunaren (PPA) izen-deiturak	
Instruktoarearen izen-deiturak	
Tutorearen izen-deiturak	

II. IKASLEAREN DATUAK

Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua	
Ikasturte akademikoa	

III. AMAIERAKO TXOSTENA

JARDUEREN DESKRIBAPEN XEHEA ETA HAIEN BALORAZIOA <i>(Balorazioa egitean, kontuan hartuko dira unibertsitate-ikasketei dagokienez eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak)</i>				
Zereginen zerrenda:	Oso ona	Ona	Eskasa	Txarra
1.				
2.				
(...)				
Hala dagokionean, praktiketan sortutako arazoen azalpen xehea <i>(Arazoen zerrenda)</i>	Arazoa nola konpondu den			
Praktikaren ekarpena ikaskuntzari dagokionez				
Hobetzeko iradokizunak				
Amaitzean, praktikak zuzen edo zeharka eragin dezake lan-kontratu bat egitea enpresa horretan edo horri lotutako beste batean?	Bai		Ez	
PRAKTIKAREN EBALUAZIO GLOBALA	Oso ona	Ona	Eskasa	Txarra

(Data eta ikaslearen sinadura)

VI. ERANSKINA

IKASLEAREN TUTOREAREN AMAIERAKO BALORAZIO TXOSTENA ETA EGIAZTAGIRIA

I. DATU OROKORRAK

Praktikaren izena	
Tutorearen izen-deiturak	
Erakunde laguntzailea	
Instruktoarearen izen-deiturak	

II. IKASLEAREN DATUAK

Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua	
Ikasturte akademikoa	

III. PRAKTIKEN PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Praktika egin den Erakundearen saila	
Praktika-aldiaren datak	
Ordu-kopurua	

V. EGINDAKO JARDUERA EDO EGITEKOEN ZERRENDA

Egindako jarduera edo lanen azalpena	Eskuratutako gaitasunak eta ezagutzak
1.	
2.	
(...)	

Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUren Arautegiaren 16. artikulua aplikatuta eta instruktoareak eta ikasleak igorritako txostenak ikusita, **positiboki** ebaluatzen dut haren parte-hartzea praktiken programan, eta ziurtagiri hau igortzen du, horien egiaztagiri gisa.

(Data eta tutorearen sinadura)

XI. ERANSKINA.

PRAKTIKA EGINGO DUTEN IKASLEEK IZENPETU BEHARREKO AGIRIA

I. DATU OROKORRAK

Erakunde laguntzailea/antolakuntza-umitatea	
Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslearen NAN zk.	
Ikaslearen titulua	

.....(e)n,(e)koren(e)(a)n

..... jaun/andreak, NAN zenbakidunak
eta UPV/EHUko ikasleak,

ADIERAZI DU

- Kanpoko praktikak egiteko UPV/EHUren eta Datu Orokorren atalean aipatutako Erakunde Laguntzaile/Antolakuntza Unitatearen arteko Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenaren baldintzak ezagutzen dituela, berari dagozkion arlo guztietan.
- Aipatutako hitzarmenak eta aplikagarria den araudiak ezarritako eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
- UPV/EHUri eta Erakunde Laguntzaile/Antolakuntza Unitateari baimena ematen diela bere datuak uzteko eta erabiltzeko, hitzarmenaren hamaikagarren klausulan ezarritakoaren arabera.

Eta, dagozkion xedetarako, goian aipatutako datan eta lekuan sinatzen dut

Sinadura